


## LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO MUNDUKO EGUNA SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAREN AURKEZPENA

**Duela 27 urte** sortu zen Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. 1993tik, ibilbide luzea egin du lanari lotutako arriskuak murrizteko eta lan-osasuna hobetzeko ahaleginean.

**CAMPAÑA OSALAN KANPAINA**  
ABRIL - 2021 - AFRILA  
Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Munduko Eguna

### Lan-istripuak



Denbora horretan, **lan-istripuak % 26 murriztu dira**. 1993an mila langileko 53,29 istripu izatetik 2020an 29,35 izatera igaro gara, hau da, **% 45 gutxiago**.

CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
ABRIL - 2021 - APIRILA

Laneko Segurtasun eta  
Osasunaren Munduko Eguna

## Istripu hilgarriak



Istripu hilgarriak ere nabarmen murriztu dira: batez beste **90 hildako** ziren Osalan eratu aurreko urteetan, eta **27, berriz, 2020an**.

CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
ABRIL - 2021 - APIRILA

Laneko Segurtasun eta  
Osasunaren Munduko Eguna

## Istripuak



Hala ere, horrek ez du ezkututzen 2020an bizi izan dugun egoera, **30.202 istripu berri erregistratu baitira**, horietatik ia 30.000 arinak, 196 larriak eta, nioen bezala, 27 hilgarriak.

Beraz, gure erkidegoan laneko segurtasunaren eta osasunaren egoera hobetzen jarraitzeko lan egin behar da, gero eta indar handiagoz, inplikaturako alderdi guztien parte-hartzea eta ekarpena indartuz. Hori dela eta, apirilaren 28an Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Eguna izango denez, Osalanek sentsibilizazio-kanpaina bat egin du mezu horretan eragiteko.

CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
ABRIL - 2021 - APIRILA

Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Mundu Eguna

**Leloa**

**LANAREN  
NAZIOARTEKO  
ERAKUNDEAK  
AUKERATUTAKOAK**



**“Krisiari aurrea hartu,  
prestatu eta erantzun.  
Gaur inbertitzea Laneko  
Segurtasun eta Osasun  
Sistema Erresilienteetan”**

**Aurten Lanaren Nazioarteko Erakundeak egun hori zabaltzeko aukeratu duen leloa:**  
"krisiari aurrea hartu, prestatu eta erantzun - Gaur inbertitzea Laneko Segurtasun eta Osasun Sistema Erresilienteetan ".

Eta horrela egiten saiatu gara Osalanen azken urte honetan, pandemia hasi zenetik, protokolo eta gida guztiak egin eta zabaldu ditugu, aztarnari-programa, non Osalaneko langileen heren bat berariaz aritu den dedikazio osoz, eta ezarri dugun Zaintza Epidemiologikoko Plana, besteak beste.

Gainera, inplikaturako eragile guztion artean erakutsi dugu – eta halaxe dihardugu – arriskua ebaluatzea, horren ondoriozko prebentzio-neurriak hartzea eta neurri horien jarraipena egitea eraginkorra dela bizi dugun moduko pandemia bat lantokietan arintzeko. Horixe da, hain zuzen ere, lan-arriskuen prebentzioan lan egiteko modua, eta hori berori, hain zuzen ere, COVID-19rekin jarraitzen ari den lan-eskema.

Alde horretatik, ezin dugu ahaztu, pandemiarekin edo pandemiarik gabe, gure helburu nagusia pertsona guztiak lanetik onik itzultzea dela.

Hori lortzeko, ezinbestekoa da pertsona guztiok ekarpenak egitea, gure esparrutik eta erantzukizunetik, laneko arriskuen prebentzioak guztion kontua izan behar baitu.

CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
ABRIL - 2021 - AHIRILA  
Laneko Segurtasun eta  
Osasunaren Mundu Eguna

**Osalanetik...**

**Beti nabarmendu  
dugu garrantzitsua eta  
beharrezkoa dela:**

**Inplikaturako administrazio,  
eragile, enpresa eta pertsona  
guztien ekarpena eta ahalegina  
batzea**



Horregatik, hain une sanitario eta profesional delikatuan, Lanaren Nazioarteko Erakundeak igorritako mezua osatu nahi dugu, batasun- eta erantzukizun-mezu bat erabilita.

Izan ere, Osalanetik beti nabarmendu dugu garrantzitsua eta beharrezkoa dela **inplikaturako administrazio, eragile, enpresa eta pertsona guztien ekarpena eta ahalegina batzea**.

Pandemia honek zerbait berretsi eta frogatu badigu, hauxe da: lankidetzeta eta ahalegin pertsonal eta kolektiboarekin, osasuna eta ongizatea zaindu daitezke lan-eremuan, baita egoera txarretan ere.

CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
ABRIL - 2021 - AHIRILA  
Laneko Segurtasun eta  
Osasunaren Mundu Eguna

**Kanpainaren  
HELBURUA**




Langileei, enpresaburuei, prebentzio-zerbitzuei, gizarte-eragileei eta administrazioei **azpimarratzea ahaleginak bateratzeak duen garrantzia, lantokian pertsonen osasuna eta ongizatea hobetze horretan**, intzenbide eta jarrera positiboak ekar ditzaketela azpimarratzea.

Eta, hain zuzen ere, alderdi hori nabarmendu nahi dugu gaur aurkezten dugun kanpainan, helburu nagusizat honako hau hartuta:

Langileei, enpresaburuei, prebentzio-zerbitzuei, gizarte-eragileei eta administrazioei azpimarratzea ahaleginak bateratzeak duen garrantzia, lantokian pertsonen osasuna eta ongizatea hobetze horretan, irtenbide eta jarrera positiboak ekar ditzaketela azpimarratzea.



Beraz, kanpainaren xede-publikoa gizartea da, oro har, baina, logikoa denez, lan-arloan inplikaturik dauden alderdi guztiei zuzentzen gaitzaizkie bereziki, batez ere norbanako bakoitzari.



Gainera, inplikaturik dauden eragile guztiengan sustatu nahi diren ekintza nagusiei ikusgarritasuna eta protagonismoa ematea bilatu da, horiek laburtuz eta kontzeptu bakar batean multzokatuz:

## BAT EGIN

Horretarako, kanpaina osoak lortzen du kontzeptuzko ildo bakar batean bateratzea mezuaren karga bisual, sortzaile eta literal guztia, bat egin kontzeptuari dagokiona.

**CAMPAÑA OSALAN KANPAINA**  
**ABRIL - 2021 - APIRILA**

Laneko Segurtasun eta  
Osasunaren Mundu Eguna

**BAT EGIN  
DUZU?**

**#EGIZUbat**

+

Galdera-ikurra bat egin kontzeptura gehitzeak eta aditza singularrean eta bigarren pertsonan uztartzeak interpelazio zuzena dakarkio hartzaileari, zer pentsa emango dio: bere parte-hartzea, inplikazioa eta kanpainaren helburuarekiko konpromisoa: laneko segurtasuna, osasuna eta ongizatea bilatzea.

Helburu bera hartuta, jarduteko eta bat egiteko gonbidapen zuzena, parte hartzeko eta parte izateko gonbidapen zuzena.

Mezu subliminala. Bat izateak plus bat dakar. Bat zenbakiak mezu nagusia indartzen du, eta positibotasun-karga bat eman.

Kontzeptu hori jendartea hainbat esparrutatik interpelatuz helarazten da, mezuazuzenean eta zeharka helaraziz:

### BAT EGIN DUZU?

Galdera-ikurra bat egin kontzeptura gehitzeak eta aditza singularrean eta bigarren pertsonan uztartzeak interpelazio zuzena dakarkio hartzaileari, zer pentsa emango dio: bere parte-hartzea, inplikazioa eta kanpainaren helburuarekiko konpromisoa: laneko segurtasuna, osasuna eta ongizatea bilatzea.

### EGIZU BAT

Helburu bera hartuta, jarduteko eta bat egiteko gonbidapen zuzena, parte hartzeko eta parte izateko gonbidapen zuzena

### Bat zenbakia

Mezu subliminala. Bat izateak plus bat dakar. Bat zenbakiak mezu nagusia indartzen du, eta positibotasun-karga bat eman.



Hori guztia egiteko, helburua lortzeko egin behar diren ekintzak eta helburu horiosatzen duten kontzeptuak txertatu dira testu bidez:

- Lana, batasuna, lankidetzak, antolaketa, prestakuntza, lankidetzak eta erantzukizuna, alde batetik.  
 (Berdintasunaren kontzeptua sartu da, lan-esparruko ekintza guztietan beharrezkoa dena)
- Laneko segurtasuna eta osasuna, ongizatea eta prebentzioa, bestetik.



Bat zenbakia aukeratutako hitz-multzoan modu bisualean dago txertatua, denak beharrezkoak direla indartzeko, bai eta batasuna eta kohesioa ere.

CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
ABRIL - 2021 - APIRILA

Laneko Segurtasun eta  
Osasunaren Mundu Eguna

## MEZUA

### Laneko segurtasuna eta osasuna

lortuko dira langile, ekonomia- eta  
gizarte-eragile, prebentzio-zerbitzu eta  
administrazio guztiek konpromisoan  
bat eginda.

Irudi nagusiari lagunduz eta haren garapen gisa, mezu hau gehitzen da:

***Laneko segurtasuna eta osasuna lortuko dira langile, gizarte-eragile, prebentzio-zerbitzu eta administrazio guztiek konpromisoan bat eginda.***

CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
ABRIL - 2021 - APIRILA

Laneko Segurtasun eta  
Osasunaren Mundu Eguna

## ZABALKUNDE KANALAK



**Bideoa:** Youtube, Osalanen webgunea, sare sozialak.

**Kalean:** ohiko kartelak

**Kalean:** markesinak, MUPlak eta Metro Bilbao  
pantailak.

**Ohiko hedabideetan**

**Online marketina, bitarteko digitaletan**

- Facebook
- Youtube
- Adwords
- Email Marketing (Newsletter)

**Kanpainaren mikrositea**

Mezu argi eta zuzena, kanpainaren ideia nagusia eta helburua laburbiltzen dituen, hainbat kanal eta euskarriren bidez zabalduko da:

- Bideo bat, Youtuben, Osalaneko webgunean eta sare sozialetan jartzekoa.
- Kanpoko publizitatea Metro Bilbaoko markesinetan, mupietan eta pantailetan.
- Hedabide konbentzionaletan (prentsa eta irratia) eta digitaletan txertatzea.
- Mikrosite espezifikoa bat, kanpainaren informazio- eta prestakuntza-iturri nagusia izango dena.



CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
 ABRIL - 2021 - APIRILA  
 Laneko Segurtasun eta  
 Osasunerari Mundu Eguna

**DISEINU  
 BISUALA**

Gaztelaniazko bertsoia



CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
 ABRIL - 2021 - APIRILA  
 Laneko Segurtasun eta  
 Osasunerari Mundu Eguna

**DISEINU  
 BISUALA**

Euskarazko bertsoia



CAMPAÑA OSALAN KANPAINA  
 ABRIL - 2021 - APIRILA  
 Laneko Segurtasun eta  
 Osasunerari Mundu Eguna

**KANPAINAREN  
 EUSKARRIAK**



**CAMPAÑA OSALAN KANPAINA**  
**ABRIL - 2021 - APIRILA**

Laneko Segurtasun eta  
 Osasunerako Munduko Eguna


**KANPAINAREN**  
**EUSKARRIAK**



**CAMPAÑA OSALAN KANPAINA**  
**ABRIL - 2021 - APIRILA**

Laneko Segurtasun eta  
 Osasunerako Munduko Eguna

**KANPAINAREN**  
**EUSKARRIAK**



**Kanpainaren kartelak - [DESCARGAR](#)**  
**Irratietarako iragarkien audioa - [DESCARGAR](#)**  
**Kanpainaren bideoa - [DESCARGAR](#)**